

**HIZKUNTZA POLITIKA.** Azaroaren 22an egingen da, eta sintesia idatziz atxikiko da plan estrategikoaren osagarri gisa

# Iritzi ezberdinak elkarrekin aztertzeke deia egin du Hizkuntza Kontseiluak

‘Zein politika euskararentzat’ izenburupean, hizkuntza politikari buruzko eztabaida antolatu du Baionan



GAIZKA IROZ

Eguzki Urteaga eta Erramun Baxok Hizkuntza Kontseiluko arduradunek hizkuntza politikaren inguruko eztabaidaren xedea aurkeztu zuten.

Aitor Renteria | BAIONA

*Zein politika euskararentzat?* lelopean, hizkuntza politikari buruzko eztabaida baten xedea aurkeztu zuten atzo Erramun Baxok Hizkuntza Kontseiluko eta Euskal Kultur Erakundeko lehendakariak eta Eguzki Urteaga Hizkuntza Kontseiluko idazkari nagusiak. Mahai-ingurua eta eztabaida azaroaren 22an egingo dira, 20:30ean, Baionako Merkataritza eta Industria Ganberako areto nagusian.

Ekitaldiak bi atal ukanen ditu. Lau hizlarik osatuko dute hastapeneko mahai-ingurua. Miren Mateo Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuordeztako Koordinaziorako zuzendariak Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politika aurkeztuko du. Max Brisson kontseilari nagusiak Hizkuntza Antolaketako Eskema eta Euskal Herriko Hiztarmen Berezia aipatuko ditu. Erramun Baxokek Quebecoko Gobernuak osatu eta gauzatu-tako hizkuntza politika aipatuko du, eta, azkenik, Eguzki Urteagak heldu den urte hastapenean gauzatzen hasi beharko litzatekeen Euskara 2015 Plana ukanten du hizpide.

«Mintzaldi hau Hizkuntza Kontseiluaren egitarauan kokatzeaz gain, Hizkuntza Politikarako Obragintza Publikoak euskara biziberritzeko sortu nahi duen tresna baten ondorioa da», adierazi zuen Baxokek. Izan ere, joan den urrian Hizkuntza Kontseiluak Euskara 2015 kargu txostenaren inguruan egindako ekarpenak bildu zituen, eta Obragintza Publikoari helarazi. Hark talde tekniko

osatu zuen apirilaren 5eko bilkuran, eta bertan bildutako proposamenetan zein onartzen dituen zehaztu behar du orain.

Baxokek azaldu zuenez, txostenak printzipiozko oniritzia hartu du, nahiz eta oraindik ezin den zehaztu zein diren Obragintza Publikoak atxikiko dituen neurriak eta zein filosofiari buruz gauzatu dituen.

Oinarritzko onespina erdietsi ondoren, oraindik egutegi finko-

rik ez badago ere, Euskara 2015 planak abian izan beharko luke heldu den urte hastapenerako. Hurrengo urte osoan egin beharrezko ekintzak zehaztu eta haiek burutzeko egutegia finkatu da. «Egitasmo horren helburuak finkatu ditugu, eta berrikuntza nagusia hori da, neurriak gauzatzeko egutegia osatuko dugula», zehaztu zuen Baxokek.

Hizkuntza Kontseiluko lehendakariak onartu zuen Planari egin zaizkion 17 ekarpenen artean iritzi arras ezberdinak daudela. «Ekarpenak egin dituzten gutzietatik eskatzen diet bilkura honetara jin daitezten eta elkarrekin azter ditzagun ikuspegi ezberdinak», gaineratu zuen Baxokek. Eztabaida horretako adierazpenak bilduko dira, eta gero Hizkuntza Kontseiluak plan estrategikoaren osagarri gisa argitaratuko du sintesia.

Hizkuntza politikari buruzko eztabaida hau Tokiko Askatasunaren Jarraldiak gertatzen diren unean plazaratu da. Biarmoko Saliesen egindako Topaketetan, Hizkuntza Kontseiluak lau ekarpen egin zituen, bertzeak bertze Frantziako Konstituzioko bigarren artikulua aldatzea, euskarari ofizialtasuna emateko helburuz.

## INKESTAK

### Bi inkestaren emaitzen aiduru

1999ko eroldaren kariatara, INSEE erakundeak euskararen ezagutzari buruzko galderak egin zituen. «Akitaniako gaineko hizkuntza gutxituen emaitzen artean agertu ziren euskarari buruzkoak ere, eta INSEERI eskatu diogu euskarari dagozkion emaitzak lau orriko eranskin batean argitara ditzan», azaldu zuen Urteagak. Haren iritziz, INSEERen inkestaren emaitzak eta Hizkuntza Kontseilurenak osagarriak dira. «Guk Euskal Herrian egin dugu inkesta, baina INSEERen Frantzia osoan egin zuenez, gainerako herrialdeetan bizi diren euskaldunen egoera zehatza zein den jakinen dugu», jakinarazi zuen Urteagak. Aste honetan bilduko da Urteaga INSEERen arduradunarekin, eta emaitzak urtea bukatu aitzin plazaratzea espero zuela azaldu zuen. Bertzalde, Eustat erakundeak Euskal Herri osoan egin inkesta soziolinguistikoaren emaitzen tratamendua bururatzen ari da, eta 2003. urtearen hastapenean argitaratuko ditu.

## Poliziak 'demo'-en auzian erabilitako gasak medikuen arrangura eragin du

A. R. | BAIONA

Azaroaren 7ko epaiketean Poliziak erabilitako gasa aipamen ugari sortzen ari da oraindik. Izan ere, lau pertsona bederen erietxera eraman behar izan zizuten, Poliziaren gasa epaitegi banean amastean trenpu txartu zirelako. Azaroaren 8an, bertze bi pertsona ere medikua ikustera joan ziren, ikusmen arazoengatik.

Azterketa egin ondoren eta lau pertsona horien egoera ikusirik, medikuek telefonoz hots egin zioten Poliziari, erabili zuten gasa zein motatakoa zen jakiteko. Poliziak erantzun zuten usaian erabiltzen duten negar gas berbera zela, baina ihardespen horrek ez zituen ezabatu medikuen eta kaltetuen dudak.

Erietxera joandako lau pertsonen azterketa egin, eta hiru eguneko lan etengabekoa eman zioten medikuek, begietan zituzten erreduren eta hatsa hartzeko arazoaren ondorioz. Medikuek larrialdietako gelako ateak ireki behar izan zituzten, lau pertsona horien soinekoetan gelditu zen gasak haiei ere negar eginarazten zielako.

### Lekukotasuna

«Ez da gasa botatzen ditudan lehen aldia, baina sekula ez dut horrelako ondoriorik ukan», adierazi zuen Menane Oxandabartz erietxean artatu zuten euskaltzaleak. «Usaian negarra eginarazten du, baina horrek hatsa moztzen zuen, birkak bete, eta eguntan arazoak ukan ditugu hatsa hartzeko», zehaztu zuen. Ura ematean erre-durak eragiten zuela gaineratu zuen.